

## 1. PodCast: “Impactos del modelo de consumo sobre los territorios”

Escuchamos a **Marta Hernandez Rivas** de la Asociación de Desarrollo Económico y Social ADES El Salvador. Mujer Diversa, Defensora y Feminista Comunitaria, comunicadora y Trabajadora Social, actualmente participa en un proceso de investigación junto a Lumaltik sobre comunicación feminista y antirracista en Mesoamérica. Es integrante de la Red Salvadoreña de Defensoras de Derechos Humanos.

“Para poder hablar de los impactos medioambientales de los proyectos como la minería metálica, al menos en El Salvador, debo de remontarme a inicio del siglo XXI, allá por el 2003 aproximadamente cuando empezamos a conocer que existía una intención clara de una empresa minera canadiense llamada Pacific Rim, la cual tenía una intención de explotar la mina de oro en cabañas. Cabañas es un departamento ubicado en la zona norte del Salvador, es un departamento que está bañado de oro, por decirlo así, tiene cinco distritos mineros y todos ellos están a la ribera del río Lempa.

En el 2003 se inició una lucha ambiental en defensa del agua, y desde ADES Santa Marta, que es la organización en Cabañas que acompaña a las comunidades, conocimos sobre esa amenaza, en ese momento, pues no se conocía nada. Y fue desde ahí aproximadamente 12, 13 años de búsqueda de información, de empaparse sobre el tema, de conocer experiencias en Honduras, por ejemplo de un proyecto que ya se habían explotado y así visibilizar los impactos que la minería tienen en los territorios para decirle a la gente de Cabañas que en el pasado ya había habido minería metálica, no a gran escala industrial como ahora funciona, pero ya se habían dado proyectos y en ese sentido ya había un antecedente de contaminación de las fuentes de agua y que la gente que vivía en las comunidades vecinas a donde se iba a explotar el proyecto se vieron afectadas únicamente con la etapa de exploración.

Gracias a toda la resistencia comunitaria y a la presión social, en nuestro caso, se logró no dar paso ni a la etapa de exploración, la comunidad era consciente de los impactos de la minería. Para nosotras nunca fue una opción porque la minería significaba la muerte para los territorios de Cabañas. Llamar minería verde es un disfraz, una máscara porque detrás siempre hay muerte para los territorios y para las personas.

La lucha social en la vida de las mujeres no es fácil. La diferencia entre luchar socialmente como mujer o como hombre es que los ataques que van contra las mujeres son ataques sexistas y llevan ese componente de agresión sexual. A las mujeres defensoras se las trata de haraganas, revoltosas, de andar en la calle como que no tienen oficio en la casa, que deberían de estar mejor cuidando al marido cuidando a los hijos y cosas de ese estilo. Sin embargo cuando hay una criminalización normalmente somos las mujeres las que estamos al frente, resistiendo y denunciando. Entonces las mujeres somos las primeras en en la línea de batalla, las primeras en la línea de resistir ante este modelo neoliberal.

En enero de este año, se dio la detención de cinco compañeros líderes comunitarios entre ellos el compañero Antonio Pacheco que es el director ejecutivo de ADES. Se conoce a nivel internacional que Antonio ha sido un firme defensor del territorio, un firme oponente a la minería metálica y, por qué no decirlo, ha sido como ese soporte de alguna manera para las

comunidades. Estas detenciones arbitrarias contra ellos supuestamente amparado en un delito de asesinato cometido durante la Guerra Civil. El delito de asesinato prescribe en 10 años, y aunque respaldamos la inocencia de los compañeros, nosotras estamos seguras y seguros que simplemente están utilizando esta criminalización para poder quitar del camino a quienes se oponen a la minería, ya que los compañeros desde la vida comunitaria en Santa Marta son líderes de la lucha antiminera.

En cuanto a la comunicación comunitaria, Radio Victoria es una radio comunitaria, parte de las veintidós radios que integran la Asociación ARPAS que es una red de medios alternativos y comunitarios, referente nacional y regional que impulsa la democratización de la comunicación. Las radios comunitarias en El Salvador desde sus inicios han sido muy estigmatizadas, ha habido un intento fuerte de parte de los gobiernos por bloquearlas, por cerrarlas y con el hecho tan claro que hay una discriminación en el acceso a la pauta, por ejemplo 19 radios comunitarias aproximadamente funcionan en una sola frecuencia que la 92.1.

Radio Victoria desde el 1993 que nació, viene identificándose primero porque nace en una comunidad (Santa Marta) y desde ahí yo creo que las raíces van bien sentadas en saber que ellas se debe a la comunidad, y hay una relación de radio comunidad, entonces la comunidad es quien le da vida, que funciona con jóvenes particularmente. Una de las funciones principales que tiene es la educación desde la programación musical, desde los programas de radio, desde la elaboración de materiales como cuñas y campañas, se están educando sobre diversos temas relacionados con los derechos humanos, con los derechos de las mujeres y de la niñez. Hay un programa específico para la niñez en la radio, es un espacio de posibilidad para participar en la juventud, es un proyecto también que ha sumado como decía yo, desde los inicios a la lucha antiminera en El Salvador.

Cuando se da la aprobación de la ley contra la minería en el 2017, todas y todos celebramos, por supuesto la radio también permitió reorientar sus temáticas en ese momento, sin embargo ahora vuelve y reafirma sin abandonar todas estas luchas que ya se venía desarrollando, así que aparte de la concientización y la educación también tiene un propósito de organización, porque a través de ella y a partir de escucharla, mucha gente se ha organizado en las comunidades para la defensa de sus propios derechos.”

## **1. PodCast: “Kontsumo eredu en eragina ingurugiroan”**

Marta Hernandez Rivas El Salvadorreko ADES Ekonomia eta Gizarte Garapeneko Elkarteko kidea da. Emakume anitza, Feminista eta defendatzaile komunitarioa, komunikatzailea eta gizarte-langilea da. Gaur egun, Lumaltik-ekin batera, Erdialdeko Amerikako komunikazio feminista eta arrazismoaren kontrako ikerketaprosesan parte hartzen ari da. El Salvadorreko Giza Eskubideen Defentsa Sareko kidea da ere.

“Meatzaritza metalikoa deritzon proiektuen ingurumeninpaktuez hitz egin ahal izateko, El Salvadorren kasuan behintzat, XXI. mendearen hasierara jo behar dugu. 2003. urtean gutxi gorabehera, Pacific Rim izeneko meatzaritza enpresa kanadiarrarenasmoen berri izan genuen, gure lurraldean urrea ustiatzeko intentzioa zuen. Cabañas El Salvadorreko

iparraldean dagoen eskualde bat da. Urrez josita dago, eta bost meatzebarruti ditu jada bertan, guztiak Lempa ibaiaren ertzean daudenak.

2003an, ingurumenaren aldeko borroka hasi zen ura babesteko helburuarekin, eta ADES Santa Martak, Cabañaseko komunitateei laguntza eskaintzen dien erakundeak, mehatxu horren berri izan zuen, une hartan ez baitzen ezer ezagutzen. Eta handik 12 edo 13 urte inguru eman zituen informazioa bilatzen, proiektua aztertzen eta Honduraseko esperientziak ezagutzen. Adibidez, ustiatuta zegoen proiektu bat ezagutzera eman zen eta, hala, meatzaritzak lurraldeetan dituen eraginak ikusgai jartzea lortu zen. Horrela, Cabañaseko biztanleei iraganean meatzaritza metalikoa bertan egon zela azaldu ahal izan zitzaion, ez gaur egun funtzionatzen duen bezala industria eskala handian, baina bai proiektuak egin izan zirela, eta, alde horretatik, lehendik ere bazegoen ur-iturriak kutsatzeko aurrekari bat. Eta proiektua ustiatuko zen inguruko komunitatean bizi zen jendea zeharo kaltetua izan zen, nahiz eta esplorazio etapa soilik izan.

Erresistentzia komunitario osoari eta presio sozialari esker, gure kasuan, esplorazio etapa hori ere ez igarotzea lortu zen, eta komunitatea meatzaritzaren inpaktuez jabetu zen. Guretzat, meatzaritza inoiz ez da aukera bat izango, Cabañaseko herrien heriotza suposatuko zuelako. Meatzaritza berdea itxurakeria hutsa da, mozerro bat, atzean lurraldeak eta pertsonak hiltzen direlako beti.

Emakumeen egunerokotasunean, borroka soziala ez da batere erraza. Gizonekin alderatuta, emakume defendatzaileen aurkako erasoak sexismoarekin lotuta daude beti eta sexu-erasoaren osagai hori dute. Emakume defendatzaileak baldar, bihurri edota kalekume gisa seinalatzen dira, kalean daude etxean lanbiderik ez dutelako, senarra zaintzen hobeto egon beharko luketela, seme-alabak zaintzen... horrelako erasoak botatzen zaizkie. Hala ere, kriminalizazio hori dagoenean, normalean emakumeak izaten gara lehen lerroan, aurre egiten eta salatzen. Orduan, emakumeak lehenak gara borrokan, lehenak eredu neoliberal horri aurre egiteko momentuan.

Aurtengo urtarrilean, bost lider atxilotu zituzten, besteak beste, Antonio Pacheco lankidea, ADES erakundeko zuzendari exekutiboa. Nazioarte mailan ezaguna da Antonio lurraldearen defendatzaile tinkoa izan dela beti, meatzaritza metalikoaren aurka sendo aritu dela, eta, argi esanda, komunitateentzako euskarri eta eredu izan dela. Atxiloketa horiek, ustez Gerra Zibilean egindako hilketa delitu batean oinarrituta daude. Delituak 10 urte barru preskribatzen du, eta, lankideen errugabetasunaren alde egiten badugu ere, gu ziur gaude kriminalizazio hori meatzaritzaren aurka daudenei bidea kentzeko erabiltzen ari direla, Santa Martako komunitatetik datozen lankideak borrokaren buru baitira.

Komunikazio komunitarioari dagokionez, Radio Victoria irrati komunitarioa da, ARPAS elkarteak osatzen duten hogeita bat irrati bat da, eta komunikabide alternatibo eta komunitarioen sarea da, komunikazioaren demokratizazioa bultzatzen duen estatuko eta eskualdeko erreferente bilakatu da. El Salvadorreko irrati komunitarioak oso estigmatizatuak izan dira hasiera-hasieratik; gobernuek ahalegin handia egin dute irrati horiek blokeatzeko, ixteko, eta diskriminazio nabaria dago informazioarako eskubidean; izan ere, 19 irrati komunitario frekuentzia beran funtzionatzen dute, 92.1 alegia.

Radio Victoria 1993az geroztik, sortu zenetik, komunitate batean (Santa Marta) jaio zen eta, nire ustez, komunitatearen oinarritzako parte direla jakitean, badago irati komunitarioaren sentsazio bat, orduan komunitateak ematen dio bizia iratiari, bereziki gazteekin lan egiten duten lan. Funtzio nagusietako bat hezkuntza da, besteak beste, musika programazioa, irratsaioak, iragarki laburrak eta kanpainak. Giza eskubideekin, emakumeen eskubideekin eta haurtzarorekin zerikusia duten hainbat gairen inguruan hezten ari dira. Irratian haurtzarorako programa bat dago, gazteriarentzat parte hartzeko aukera bat da. Esan bezala, hasieratik El Salvadorreko meatzaritzaren aurkako borrokara gehitu den proiektua da.

Meatzaritzaren aurkako legea onartu zenean, 2017an, denok ospatugenuen, noski, iratiak ere aukera eman zuen bere gaiak birbideratzeko. Baina orain, itzuli eta berretsi egiten ditu dagoeneko egiten ari ziren borroka horiek guztiak, eta, beraz, kontzentrazioaz eta hezkuntzaz gain, antolatzeke asmoa ere badu. Izan ere, horren bidez eta entzuetetik abiatuta, jende asko bere defentsarako komunitateetan antolatu egin da”.